

KONSTITUZIOAREN KONTZEPTUA, SORRERA ETA BILAKAERA

Iñigo Lamarca Iturbe

Konstituzioa estatuak gauzatzeko eta berauen baitan sortzen diren arazo eta gatazkak bideratzeko dagoen tresnarik garrantzitsuena da, beste lege guztiak haren azpian daudelarik. Bi edukin nagusi ditu, herritarren eskubideak batetik eta erakundeen konposaketa, ahalbideak eta iharduera bestetik.

Gaur ulertzen dugun konstituzioa, hots, testu idatzia, aldatzeko zailtasunekin eta botere guztiak mugatzen dituen, estatu liberalarekin sortzen bada ere, beraren aztarnak luzeak dira. Hain zuzen egileak artikulu honetan haren bilakaera historian zehar aztertzen du, hasi Grezia klasiko eta Erromatik eta gaur egun arte iritsiz. Arreta bereziaz jorratzen dira lehen konstituzioak, hau da, britainiarra, amerikarra eta 1.791.eko frantziarra eta XIX. eta XX. mendeetako europarrak.

Halaber, bilakabidearen aro desberdin nagusiak deskribatzen dira, hots, monarkia konstituzionala, monarkia parlamentarioa, Sobiet Batasunako konstituzio iraultzailea, konstituzio demokratikoak,... Bigarren Mundu-Gerra ostean sortuko diren konstituzio demokratiko-liberal eta sozialistek hartuko duten indarra azpimarratzen da. Amaitzeko, konstituzio-ereduen etorkizuna azaltzen da.

Konstituzioa zer den

Konstituzioa Estatuari zuzenki lotuta dago. Hain zuzen ere, Estatuaren ezaugarri nabarmenetarikoa arazo, gatazka eta errealitate politikoa orohar bideratu nahia da, eta honetarako Zuzenbidea da tresnarik aproposena, eta honen barnean, noski, Konstituzioa, hau baita Zuzenbidearen gailurra. Zuzenbidea, beraz, Estatuaren justifikazioa, forma eta helburua da. Honenbestez, Estatu orok bere Konstituzioa izango du. Are gehiago, Estatuaren gauzatzea Konstituzioaren bidez egingo da, bertan jasoko baita erakunde-antolamendua eta gizarteak ustez dituen helburu eta printzipioak.

Estatua eta Konstituzioaren arteko identifikazioa jurista liberalei zor diegu, botere politikoa legearen menpean ezartzea izango baita haien xede nagusia. Kontzeptzio liberal honi jarraiki, esan genezake Konstituzioa zera dela, arau juridiko funtsezko eta inportanteenen multzoa, zeintzuek gizarte estataleko erakundeak antolatzen dituzten, gobernarien ahalmenak ongi zehaztuz eta diskrezionalitateari eta arbitrarietateari mugak ezarriz eta herritarren eskubideak onetsi eta garantizatzen dituzten gizartearen helburuak eta iharduera-printzipioak zeintzu diren esanez. Bi edukin nagusi izango ditu, beraz, Konstituzioak: herritarren eskubide eta askatasunak batetik (zati dogmatikoa deituko zaiona) eta bestetik erakundeen konposaketa, ahalbideak eta iharduera (zati organikoa).

Zentzu estrikto batetan, beraz, Konstituzioa Estatu modernoarekin sortuko da, liberalismoaren garai-penararkin. Lehenengo Konstituzioak, gero ikusiko dugunez, ingelesa, iparramerikarra eta frantziarra izango dira.

Baina honek ez du esan nahi zentzu zabal batetan antzinago konstituziorik ez zenik. Historian zehar, geroxeago ikusiko dugunez, giza komunitate askok izan dituzte gobernatzeko legeak eta gobernariak hauen arabera jokatu behar zuten. Lege hauek, dena den, nagusiki ohitura eta pertsona eta taldeen arteko paktuez adierazten ziren. Razionalismo modernoak ekoiztuko du lege idatzia borondate orokorraren fruitu bezala. Hein honetan, Konstituzioa lege inportanteena izango da, ordenamendu juridikoaren gailurra.

Konstituzioaren kontzeptua zehazteko orduan bada oso kontutan izan beharreko beste bereizketa: Konstituzio formala eta materiala. Konstituzio formala dokumentu batetan idatzirik dauden funtsezko arauak osatzen dute. Baina ez dugu ahaztu behar erabaki politikoak gizarte batetan dauden botere eta indar desberdinen arteko harreman dialektikoaren ondorio direla une historiko bakoitzean eta berau aldatzen doan neurrian dinamika politikoa ere aldatu egiten dela. Esan nahi duguna zera da, Konstituzio bat indarrean jartzen denetik prozesu politikoak dinamika propioa duela eta honek testu nagusiko atal batzu zentzu batetan aplikatu ditzake, beste batzu

aplikatu ez, arau berriak sortu Konstituziotik at etab. Errealitate politikoan ari diren arau nagusiei, hain zuzen, konstituzio material deituko zaio. Kontzeptu honi definizio ugari eman zaio: botere-elementu errealeen multzoa (Lasalle), erabaki politiko funtsezkoenak (Schmitt) etab. Guk, dena den, Konstituzio materialaz ez dugu jardungo Britainia Handiko kasua salbu.

Konstituzio hitza erabiltzen dugunean, beraz, Estatu liberalaren eskutik sortzen den testuaz arituko gara eta beronen ezaugarri inportanteen bezala hauek aipa genitzake:

-testu idatzia izango da, batez ere printzipioak, eskubideak eta orohar barnean dituen arau nagusien aplikazioa ahalik hobekien bermatzeko.

-Konstituzioa, zentzu juridiko batetan, arau nagusia izango da eta gainontzeko guztiak beraren menpe eta esanetara egongo dira. Legeak, Parlamentuak sortzen duen araua, ezingo du Konstituzioko ezein arau aurkatu. Hau behar bezala betearazteko, gainera, kontrol konstituzionala eratzen du Konstituzioak berak, erakunde bati (Auzitegi Gorena Estatu Batuetan, eta Auzitegi Konstituzionalak Europa demokratikoan) legeak ezabatzeko ahalmena eman ez arau konstituzional baten kontra badoa.

-Konstituzioa ezingo da nolana aldatu. Aitzitik, bertan jasotako prozeduraren bidez bakarrik aldatu ahal izango da. Prozedura hau ez da batere erraza izaten eta helburua zera da, indar politiko bakar batek, une batetan

gehiengoa duela aprobetxatuz, ez dezala unilateralki bere ideologia edo politika konstituzionalki ezarri. Konstituzio hauei zurrinak deituko zaie. Parlamentuak lege-prozedura arrunta erabiliz alda lezakeenean –Britainia Handiko adibidea– flexiblea deituko zaio Konstituzioari.

Konstituzioaren lehen aztarnak (zentzu zabalean)

Zenbait autoreren ustez, Konstituzioaren iturburua antzinako Grezian aurki genezake. Aristotele filosofoak greziar hirietako 158 konstituzio aipatzen ditu (iraganikoak edo indarrean zeudenak) egun tamalez galdua den obra batetan.

Grezia baino lehen Egipton (Kristo aurretiko bi mila urte inguruko garaian) egitura politiko-administratibo oso sendoak dauzkagu eta nolabait Konstituzio organikoa bazegoela esan genezake. Baina Konstituzioa ez da organizazio-arauen multzoa soilik. Benetako Konstituzioak botereen mugaketa eskatzen du eta herritarren partehartzea arazo publikoetan. Egipton boterea autokratikoa zen, faraoiaren eskuetan zegoen eta herritarrek ez zituzten eskubide politikoak. Egiptoko adibidea, beraz, ezin dugu aurretiko bezala hartu.

Greziako hiria –polisa–, berriz, alderdi askotan Estatu modernoaren prefigurazio bezala har genezake. Estatuarekiko diferentzia nabarmenak bi liriteke: dimentsio geografikoa eta esklabismoa.

Polisean hiritarrak oso guti ziren eta horregatik eskuhartze politikoa oso inportantea zen, baina muga bateraino: antolakuntza sozialaren oinarri politiko eta erlijiosoak auzitan ez jartzea. Zentzu honetan, botere mugagabekorik edo absoluturik ez dugu aurkitzen baina hiritarraren askatasuna ez da erabatekoa: gchiengoaren erabakiak asumitu beharko ditu eta gizarte-erregelak errespetatu. Guzti honen adierazgarri Sokrates dugu: zikuta hartzera kondenatua izan zen hiriko jainkoak eta organizazio politiko-soziala auzitan jarri zituelako.

Eskuhartze politikoa hau era askotara egiten zen: legeak publikoki herriko plazan bozkatu, agintariak hautatu edo errebokatu... Normalean, Errepublikara garaiak karguak zozketaz betetzen ziren eta urtebeterako. Hiritar guztiak ziren, aldi berean, gobernari eta gobernatu. Bestetik, gobernamendua ohituren arabera egiten zen nagusiki.

Sistema honek abantailak bazituen baina baita akats inportanteak ere, sistemaren iraunkortasunari bagagozkio behinik behin. Administrazio profesionalik ez zegoen, Estatu-aparatorik ia ez dugu aurkitzen (Estatu-komunitatea da nagusia). Egituraketa ahul honek ezingo zuen luzaroan iraun.

Interesgarria deritzogu, halaber, Aristotelek eginiko erregimen politiko edo konstituzioen sailkapena gogoratzeari: hiru mota bereizten ditu agintarien kopurua eta berezitasunak kontutan izanik: monarkia, aristokrazia

eta demokrazia (lenengoan pertsona batek gobernatuko luke, bigarrenean elite batek eta hirugarrenean herriak). Hauetariko bakoitza deforma daiteke: tirania, oligarkia eta demagogia lirateke parekoak. Lehen hiruretan gobernamendua gobernatuen probetxurako edo onerako da eta besteetan, berriz, gobernatzen ari direnen alde.

Greziatik Erromara egiten dugu salto. Hasieran, Erroma hainbat greziar hiriren antzekoa zen. Zabaleroan kasko urbanoa eta inguruko lurrek osatzen zuten. Demografikoki populazioa Atenas edo Espartaren neurrikoa zen eta, Grezian bezala, pertsona libreak eta esklabuak zeuden eta ondorioz kopuru tikiak zen hiria bizitzan parte hartzen zuena.

Dakigunez, Erroma Inperio bilakatu zen, baina Erroma ez zen inoiz Estatu izan, egun termino honi ematen diogun esanahiaren arabera behintzat. Erromatar Inperioan Erroma dugu burua eta hura osatzen zuten herriak honen babespean zeuden, autonomia apur bat zutelarik: bakea bermatzen zien hark eta zergak jasotzen honen truke zerbitzu publiko batzu eskeiniz, bereziki bide eta errepideak.

Erromaren aportazio nagusietarikoa zientzia politikoaren alorrean subiranotasunaren kontzeptua izango da, botere gorena bezala, hots, honen gainetik ezein aginte ez dagoela. Enperadorea zen subiranotasunaren titularra. Nozio hau Erdi Aroko monarkia absolutuetan agertuko zaigu berriro; Estatu liberalean, nazioa edo herria izango da haren jabe.

Erroma errepublikanoan, Grezian gertatzen zenaren antzera, hiritarrek askatasun politiko inportanteak zituzten. Hiriazen gobernuan eskuhartzen zuten, baina askatasun hauek murriztuz joan ziren Errepublikak bukaeran gertatu ziren borrokengatik eta desagertu egin ziren Inperioan.

Erromak, bestetik, aportazio oso inportanteak egin zizkion Zuzenbideari, baina pribatuari (kontratuak, ezkontza, heredentzia, etab.) gehien bat. Zuzenbide konstituzionalean ez dugu elementu destakagarririk aurkitzen.

Konstituzioa, dena den, zentzu estriktu batetan, Estatu liberalarekin sortuko da. Datu nagusi bezala, gogoan izan behar dugu Grezian eta Erroman Hiria zela eremu politikoa eta pertsona libreek bakarrik zutela eskuhartzeko eskubidea. Demokrazia zuzena posible zen. Baina Estatuan, eremu politikoa askoz zabalagoa da eta partehartzea ezuzena izango da, ordezkarien bidez. Honek, noski, eskemak erabat aldatu egingo ditu.

Konstituzionalizazioaren mugimendu desberdinak

Konstituzioaren sorreran hainbat egintza historiko-politiko aurki genitzake, Estatu-mota desberdinak sortu dituztenak.

Lehen egintza, behin eta berriro aipatu dugunez, iraultza burgesak dira, Estatu monarkiko absolutistaren aurka egin zirenak. Garrantzitsuenak, edo

aipagarrienak honakoak ditugu: Ingalaterran 1642 eta 1688an eman zirenak; 1776ko amerikar independentzia-gerra eta frantziarra, 1789koa. Azken honek European zehar ideia liberal-iraultzaileak barreiatu zituen inperialismo napoleonikoari esker. Mugimendu hauek sortutako Konstituzioak hiru izango dira nagusiki: britainiarra, amerikarra (1787) eta 1791ko frantziarra. Lehenengo biek, aldaketa ugariekin, indarrean diraute egun.

Liberalismoaren kontra erregimen absolutista berrezarri nahian mugimendu kontrairaultzaile inportantea gertatu zen European zehar Napoleonek agindua galdu zuenetik. Frantzia, Italia, Austria eta Espainian jazotakoa jar genezake adibidetzat. Dena den, gizarte-mailan klase sozial desberdinen arteko oreka guztiz aldatua zen eta burgesiak eta klase popularrek lehen ez zuten protagonismoa esijitzen zuten. Prozesu guzti honen ondorioz monarkia ez da absolutua izango, mugatua baizik. Monarkia konstituzionala edo mugatua izango da garai honetako ereduak.

XIX. mendean Monarkia mugatu honen kontra iraultza demokratikoak altxatzen dira eta nahiz eta zapuztuak izan, garrantzi handia izan zuten konstituzionalismoan. 1830eko gertakariak eragin handia izan zuten, adibidez, Belgikako 1831ko Konstituzioan (egun indarrean dagoena) zeinak monarkia parlamentarioa inauratzen duen. Konstituzio hau, gainera, beste zenbaitzuren eredu izan zen (Rumania, Bulgaria, Grezia, Serbia..).

1848ko iraultzak pisu askoz handiagoa izan zuen. Frantziako urte honetako Konstituzio demokratikoan inspiratuz banaka batzu sortu ziren: Danimarkan (1849), Holandan (1848), Espainian (1869)... Subiranotasun nazionala dute oinarritzat eta nahiz eta gehienak ezabatuak izan, aurretiko oso inportantea suposatzen dute hurrengo mendeko Konstituzio demokratikoentzat.

XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran Monarkia konstituzionala (non Erregeak botere exekutiboa zuen eta legegintz ahalmenean eskuhartze inportantea) parlamentario bilakatuko da, sistema honen ezaugarri nabarmenenak hauek direlarik: subiranotasunaren titularra nazioa edo herria izango da; botere exekutiboa gobernuaren esku egongo da; Erregea Estatuburua izango da soilik eta ahalmen sinbolikoak edo errepresentaziozkoak izango ditu.

Hurrengo gertacra nabarmena lehenengo mundu-gerra ostea da. Bi mugimendu desberdin aurki genitzake: bata errusiar iraultza eta 1918ko Konstituzio iraultzailea. Honekin konstituzionalismo berri bat sortuko da, sozialista, berezitasun ugariarekin. Bestetik Estatu berri asko eratuko da eta bertako Konstituzioek Mendebaldeko konstituzionalismo liberala hartuko dute eredutzat baina printzipio demokratiko erradikalak jasoaz. Adibide ugari daukagu: Finlandia (1919), Baltikoko Errepublikak (1920-22), Polonia (1921), Txekoslovakia (1920), Yugooslavia (1921), Alemania (Weimarreko

1919ko Konstituzioa), Austria (1920), Hungaria (1920), Turkia (1924), Irlanda (Ingalaterratik independizatu eta gero 1922an), Grezia (1927). Espainiako II. Errepublikaren (1931) mugimendu demokratiko honen barnean sartzen zaigu bete-betean.

Konstituzionalismo demokratiko honek testu konstituzionalean espreski agertarazi nahiko du —eta zorrozki bermatu— azken mende erdian monarkietako praxis politikoak piskanaka inkorporatu dituen printzipio demokratikoak. Hein honetan Konstituzioak funtzio bermatzaile oso inportantea izango du, alegia antolamendu politiko demokratiko batetarako funtsezkoak diren elementuak (subiranotasun popularra, sufragio unibertsala, askatasun politikoak eta gizabanakoaren eskubideak, boterearen zatiketa etab.) espreski Konstituzioan jaso eta biziki babestu. Dena den xede hau ez da beteko, Alemaniako esperientzia beltzak azaltzen digunez. Weimarreko Konstituzioa guztiz demokratikoa zen baina zirkunstantzia ekonomiko eta sozio-politikoek nazismoa sortu zuten demokrazia eta konstituzionalismoa ezabatuz.

Bigarren mundu-gerraren ostean konstituzionalismoaren barruan lehen aipaturiko bi mugimenduak indartu eta euren artean banandu egingo dira. Batetik Mendebaldeko Konstituzio demokratiko-liberalak izango ditugu eta bestetik sozialistak.

Lehenengoz zera esan daiteke, Konstituzio guztiek (berriak batzu, aldatuak beste batzu) printzipio

demokratikoak jasotzen dituztela inolako ezberrik gabe. Honekin batera, dena den, demokrazia hauen egonkortasuna bermatuko duten mekanismoak ezartzen dituzte. Parlamentuak lehentasuna izango du teorian (herriak aukeraturiko erakundea denez, hura ordezkatzeko), baina Gobernuak izango da (Parlamentuaren konfidantza beharko duelarik) botere nagusia eskuratuko duena. Konstituzio berri hauetaz destakatu behar da, halaber, eskubide sozialak jasotzen dituztela (hezkuntza, seguritate soziala, asistentzi zerbitzuak...). Ongizate-Estatu edo Estatu sozial izena emango zaio estatu-mota honi. Honako konstituzioak aipa genitzake: Frantzia (1956, aurretik 1946koa), Alemania (1949), Italia (1947), Japonia (1946). Hauen eraginez testu berri batzu sortuko dira (Danimarka, Portugal, Espainia...) edo beste batzu sakonki aldatuko (Holanda, Belgika...)

Konstituzio sozialistek sistema politiko guztiz bestelakoa instauratzen dute. Ez dugu sistema hau aztertuko; besterik gabe, Konstituzio hauen esentziaz eta funtzioaz zertxobait esango dugu. Marx eta Engelsen teoriaren arabera Estatuak eta Zuzenbidea desagertarazi egin behar ziren gizarte komunistan, klase kapitalistak langileria dominatzeko tresna bait ziren. Errusiar iraultzaren garaipenaren ondoren, 1918ko Konstituzioak funtzio prezisua zeukan: iraultzaren erabateko garaipeneko tresna izatea. Konstituzioak, beraz, paper mugatua eta menpekota zuen. Iraultza eta honen gidaria zen partidua ziren dinamika

sozio-politikoak erabakitzen zutenak inolako mugarik gabe. Konstituzioa bigarren maila batetan zegoen; Estatu liberaletan, aldiz, esan bezala, erakunde eta indar politikoak Konstituzioaren esanetara makurtu behar ziren. Kontzeptzio honek eboluzio sakona izan du. Garai estalinista superatu eta gero (Errusiako 1936ko Konstituzioa eta haren eraginez beste herri sozialistetan onartutako testuak), Konstituzio sozialista berriak egin ziren (Txekoslovakian 1960an, bi erreforma inportante izan dituelarik 1968 eta 1970ean; Rumanian 1965ean; Hungarian 1972an; RDAan 1968an; Bulgarian 1971n eta batez ere Sobiet Batasunean 1977an). Konstituzio hauek egoera politiko berria (nazio bakoitzaren barnekoa eta nazioartekoa) isladatzen da. Konstituzioak herri bakoitzaren berezitasunak jasotzen ditu (uniformismo estalinista baztertzuz). Bestetik, mundu kapitalistaren suntsitzea ez da gertu ikusten eta ondorioz Zuzenbideak —eta nagusiki Konstituzioak— badu zeregin inportantea: sozialismoaren konkistak ziurtatu eta etorkizunerako programak eta helburuak aurrikusi.

Konstituzio liberalen antzera, Konstituzio sozialistak iturri normatibo nagusi bilakatzen dira eta arau guztiek eta erakunde politikoaren ihardura eta ekintzek harekin bat etorri beharko dute. Hala ere, Konstituzioaren erreforma Parlamentuaren esku dago. Honek dinamotasuna eta aldakortasuna ematen dio Konstituzioari (liberalek ez dutena), baina baita eze-egonkortasuna ere. Dena den, hasieran

Konstituzio formala eta materialaren artean egindako bereizketa izan behar dugu gogoan, herri sozialistetan, hain zuzen Konstituzio materialak sekulako garrantzia izango du eta, beronen agente politiko-juridiko inportanteena alderdi komunista izango delarik.

Azken faktore politiko-historiko bat bada Konstituzioen sorrera azaltzeko. Hirugarren munduan Konstituzio piloa sortu da independentzia lortu ahala. Hala ere, Zuzenbide konstituzionalari ezer guti aportatu dio fenomeno honek, lehenik zeuden ereduak jarraitu bait dituzte kasu gchienetan (Estatu kolonizatzailearena hain zuzen). Iraultza sozialista gertatu den kasuetan, berriz, konstituzionalismo sozialista izan dute erreferentziatzat. Hego-ameriketean, berriz, Estatu Batuetako Konstituzioak eragin handia izan du. Hala eta guztiz, herri hauetako errealitate sozio-ekonomikoa eta politikoa erabat berezia da eta konexio eskasak dauzka ekuadorretik gorako estatu liberal zein sozialistekin. Honenbestez, testu hauen aplikazioa oso berezia da. Berriro ere, herri hauetako Konstituzioa materiala da eta honen osagaiak guztiz dibertsoak dira.

Lehenengo konstituzioez aipamen berezia

Iraultza burgesak hiru konstituzio nagusi sortu zituen: britainiarra, amerikarra eta frantsesa.

Ingalaterran printzipio liberalak sistema politikoaren ardatz izatera iritsi arte prozesu luze bezain korapilotsua

eman zen. Burgeseriak Komunen Ganbara eratzea lortu zuen eta gobernamentuan partehartzea. 1642an paktua hautsi eta Carlos I erregea hil ondoren Parlamentuak Errepublikak proklamatu zuen Cromwell buru zelarik. Honek Konstituzio bat egin nahi izan zuen –Instrument of Government– baina Parlamentuak ez zuen onartu. Cromwell hil ondoren monarkia birrezarri zen. 1688an Parlamentuaren subiranotasuna proklamatu zen erregearen ahalbideak mugatuz. Printzipio hau britainiar konstituzionalismoan oinarritzkoa izango da, ez bait da honen gainera testurik onartuko. Britainia Handian ez da, ondorioz, testu konstituzional bakarra eta idatzia egongo, botere guztien gainera egongo dena. Parlamentuaren oinarritzko legeek osatuko dute Konstituzioa. Honekin batera guztiz inportanteak izango dira epaileen erabakiak –common law– eta komentzioak. Konstituzio britainiarra flexiblea eta dinamikoa izango da, garai historiko-politiko bakoitzeko eskakizun eta beharretara egokituz.

Estatu Batuetako Konstituzioa 1787ko irailaren 17an onartu zuen 13 ingeles kolonia ohietako ordezkariak osaturiko asanblada konstituyente batek. Konstituzioa oso laburra da, alderdi funtsezkoenak bakarrik jasotzen dituelarik. Geroztik 26 emendakin izan ditu (eskubide eta askatasun berriak erantsiz). Amerikar testu konstituzionala konpromezu zail baten fruitua da: konfederalak eta unitarioak batetik, liberalak eta esklabistak, kontserbadoreak eta progresistak... Estatu federal moduan antolatzen da, Federazioari botere orokor eta zehaztuak emanez.

Botereen arteko zatiketa zorrotza da eta bai Presidenteak bai Parlamentuak ahalbide inportanteak dituzte. Garrantzi berezia du Auzitegi Gorenak, zeinak Konstituzioa interpretatzen bait du egoera berrietara egokituz. Zentzu honetan Federazioari ahalbide gero eta handiagoak eskuratu zaizkio sezesioaren gerra ostean hasi zen prozesu zentralizatzaile batetan.

Frantzian, Luis XVI.ren erregealdiaren azkenaldian burgeseriak 1789.eko estamendu generalen konbokatoria Asanblada Nazional konstituyente bilakatzea lortu zuen Sieyès-en proposamenei jarraiki. Hemendik sortutako Konstituzioak erregimen politiko berri bat sortzen du: Monarkia konstituzionala edo mugatua. Subiranotasunaren titularrak nazioa izango da, ez erregea, eta ondorioz botere guztiak deribatuak izango dira. Boterea zatitu egingo da gainera eta Erregeak exekutiboa izango du soilik, borondate orokorra Parlamentuak adieraziko duelarik. Britainiar prozesuarekiko diferentzia nabarmena hauxe izango da: Konstituzioa, subiranotasun nazionalaren adierazpide bezala, botere guztien ginetik egongo da frantziar konstituzionalismo berrian (Ingalaterran, aldiz, Parlamentuaren ahalmena mugagabea da, ez dago ezeren menpe). 1791.eko Konstituzioak bizitza oso laburra izango du. Erregeak ez du beteko eta ondorioz egoera erradikalizatu egingo da. Hala ere Konstituzio honek eragin handia izango du XIX.eko europar konstituzioetan. Monarkia konstituzionala mende honetan parlamentario bihurtuko da: botere exekutiboa gobernuaren esku

egongo da, zeinak Parlamentuaren konfidantza izan beharko bait du; erregeari ahalbide sinbolikoak utziko zaizkio.

Konstituzio desberdinen sorburua eta konstituzio-ereduak

Laburpen historiko gisa, egun indarrean dauden Konstituzioak sortu dituzten aktu konstituyenteen motak aipa ditzakegu:

1-Monarkia absolutuaren eboluzio historikoa. Kasu batzutan antzinako egiturak zirkunstantzia sozio-ekonomiko eta politiko berrietara egokitu dira. Dena dela, gaur egun antzinako erregimen zaharretik geratzen den formalismo edo sinbolismo hutsa da. Eredu honen adibide argiena Britainia Handia da. Orohar monarkia parlamentarioak (Eskandinavia, Holanda, Belgika...) tipo honetan sar genitzake, baina kasuz kasu aztertu beharko lirake multzo honetan, hurrego ereduari sar daitezkeen kasuak badirelako.

2-Iraultza burgesak Estatu liberala sortu zuen eta Konstituzioek printzipio berrien arabera antolatu zuten gizartea. Frantzia dugu eredu honen adibide nabarmenena, nahiz eta bere historia konstituzionalean 13 testu eduki.

3-Erregimen faszista atzean utzi ondoren, europar zenbait herri Konstituzio demokratiko-liberalak onartu zituzten. Eredu honetan hiru mota bereiz ditzakegu:

- fashismoa gerrak garaitu zuen: Alemania Federala eta Italia.
- iraultza batek suntsiarazi zuen: Portugal.
- erreforma bidez heldu da sistema demokratikora: Grezia, Espainia eta estatu hegoamerikarrak.

4-Independentziak eragin du kasu askotan akto konstituyentea: EEBB, Irlanda, Australia, Kanada eta Hirugarren Munduko estatu berriak.

5-Iraultza sozialistaren ondorioz Konstituzio sozialistak ditugu.

6-Iraultza islamikoak fenomeno berri bat sortu du arestian: Koranean inspiraturiko Konstituzioak. Iranen kasua da erradikalena: txiismoari jarraiki Korana bera da Konstituzio materiala. Sunismoaren eraginpean dauden herrietan, aldiz, formalki hartu den Konstituzioek eredu liberala (Marruecos, Saudi Arabia, etab.), sozialista (Argelia, Libia, Siria...) edo "mistoa" (Egipto, Tunez...) segitu dute, baina errealitate konstituzionalean islamak gero eta garrantzi handiagoa du.

7-Konfederaturiko estatu batzuk Estatu federatua eratzen dute (beti borroka, galazka edo gerra latzen ondoren), Konstituzio-mota berezia onartuz. Suitza, Estatu Batuak eta Alemania Federala ditugu honen adibideak.

8-Ekintza militar batek Konstituzio berria sortaraz dezake, baina kasu honetan benetako konstituzioa agintzen ari den militar taldearen borondatea eta armak dira. Txile, Panama...

Akto konstituyente guzti hauek (hauetaz aparte kasu bereziak ere badira) testu konstituzional desberdinak sortu dituzte. Bakoitzak, noski, berezitasun asko dauzka baina funtsean guztiak bi edo hiru eredutan bilgenitzake.

Honetarako beharrezkoa zaigu bi kontzeptu bereiztea: Estatu-formak eta gobernu-formak. Lehenengoak hauxe diosku: Estatuaren barneko harremanak zer-nolakoak diren, zeintzu diren Estatu horren helburuak eta printzipio nagusiak. Bigarrenak, berriz, hauxe diosku: erakunde politikoak nola antolatzen diren eta euren arteko botere-banaketa eta harremanak nola arautzen diren.

Estatu-formak bi dira nagusiki: liberala eta sozialista. Beste kategoria batzu ere badira: islamikoa, fashista, garapen bidean dauden estatuak... Gobernu-formak berriz bi dira nagusiki: presidentzialista (EEBB) eta parlamentarioa (BH, Italia...). Hirugarren bat bereizten dute batzuk: semipresidentzialista (Frantzia).

Konstituzio desberdinen artean sailkapen asko egin daiteke, ugariak bait dira sailkapen-erizpideak, baina garrantzi eta pisu handiena duena estatu-formen arabera egin genezakeena da. Honenbestez, konstituzio-eredu inportanteenak bi dira: demokratiko-liberala eta sozialista edo komunista, haien arteko diferentzia nabarienak azaldu ditugularik.

Konstituzio-ereduak etorkizunean

Etorkizunari begira eredu bien arteko diferentziak gutitu egingo dircla argi ikusten da. Estatu sozialistetan Konstituzioak betetzen duen funtzioa liberalen parekoa da gauregun: sistema politikoa irauneraztea eta beronen printzipioak bermatzea.

Esan ohi da –analisi erabat sinplikatuz noski– Estatu eta Konstituzio liberalen jabe nagusia askatasuna dela eta sozialistena berdintasuna, haiek berdintasunari muzin egin diotelarik eta hauek berriz askatasuna ukatu. Dena dela, bigarren mundu-gerraren ostean Estatu liberalak aldaketa nabarmena izan dute ezkerreko partiduen ekintzengatik: berdintasuna bultzatu da eskubide sozialak sortuz eta Konstituziora inkorporatuz.

Estatu sozialistak, aldiz, aldaketa-prozesu sakonean daude, liberalismoaren printzipio nagusiak onartze bidean: pluralismoa batetik eta sektore pribatuaren eskuhartze gero eta sakonagoa eta inportanteagoa ekonomian. Prozesua eteten ez bada, bizpahiru urteren buruan Polonia eta Hungariak Konstituzio demoliberal berriak izango dituzte eta Sobiet Batasuna ildo horretatik abiatuko da, baina manisoago.

Munduaren iparraldean, beraz, hain urrun zeuden ereduak hurbilduz joango dira eta hamar-hamabost urte barru Estatu-formak ez dira hain desberdinak izango. Diferentziak maila konstituzional formalcan baino errealitate

sozio-ekonomikoarekin zerikusia duten elementuei dagokienean nabarmenduko da: Estatuaren eskuhartzea ekonomian, klase sozial desberdinak sistema batetan eta bestean, garapen ekonomiko guttiz diferentea...; guzti honek, noski dinamika politiko bereziak sortaraziko ditu eta "konstituzio material" deitu dugun horretan sistema bien arteko aldeak inportanteak izango dira oraindik.

Bereizketa nagusia, dena den, Ekialdea eta Mendebaldearen artean izan ordez, Iparralde eta Hegoaldearen artean izango da. Egun, Hirugarren Munduko herrietako konstituzionalismoa guti ikertu da. Lehen esan bezala, zentzu formal batetan bederen, eredu demoliberala edo komunista erabili dituzte testu konstituzionalak egiteko orduan. Konstituzio materiala, dena den, oso bestelakoa izan da. Hemendik aurrera, Mendebalde kapitalista eta Ekialde komunistaren arteko diferentzia politiko-konstituzionalak gutituz doazen neurrian eta bloke bien arteko tentsioa epeltzen, Iparralde eta Hegoaldearen arteko dialektika izango da nagusi, herri aberatsen eta pobreen artekoa alegia. Hirugarren Munduko nazioetako errealitate sozio-ekonomiko bereziek sistema politiko-konstituzional propioak sortuko dituzte (sortuak dira dagoeneko baina oso guti estudiatu dira kapitalismoa/sozialismoa tentsioak ezkutatu egin dituelako), eredu demokratiko-liberalarekiko (ez dezagun ahantz berau Estatu aberatsetan, Lehen Munduan, dagoela indarrean) diferentziak zeharo nabarmenduko direlarik.

